

**GENERO INDARKERIA**



azko urte judizialaren hasiera ekitaldian.

badaezpada neurriak hartzea eta legeak aplikatzea da», argitu zuen, epaileengan erantzukizun gehiegi ezartzen direla aditzera emanez.

Hala, Ruiz de la Cuestak garrantzia eman zion sektore eta erakundeen arteko koordinazioari. Ildo horretan, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Emakumearen Institutuak, Poliziak eta Fiskaltzak hitzartutako «proiektu egokia» egon badagoela azaldu zuen, eta horren helburua erakunde guztiek ekintzak koordinatzea dela. «Arazo hauei ahal den neurrian aurrea hartzeko bidean gaude, eta epaitegi guztiek dute horren kontzientzia, baina zerbaitek huts egiten du», gaineratu zuen.

Horri erantzunez, biktimen beren kontzientziario ezinbestekoa dela deritzo Ruiz de la

**RUIZ DE LA CUESTA**

**Nafarroako Auzitegiako presidentea**

**«Emakume asko aholkatu eta abokatuarekin harremanetan jarri ditut, baina batzuek gero ez dute ezer ere egin»**

Cuestak, batzuetan «interesatuek berek egiten baitiote uko abisua emateari». Horrek horrela jarraitzen duen bitartean, behintzat, «irtenbide zaila» ikusten dio Nafarroako Auzitegi Nagusiko presidentek arazoari.

«Niregana etorri eta aholkua eman diet emakume askori, abokatuarekin kontaktuak jarri ditut, baina batzuek gero ez dute ezer ere egin», azaldu

zuen epaileak. Gauzak horrela, bikotekidearen aldetik indarkeria edo tratatu txarrak pairatzen dituzten emakumeak gertaerak salatzea deitu zituen, eta beraien babeserako hartzen diren neurrien inguruan kontzientzia hartzera.

**Familiak salatu du epaileen jarrera**

Nafarroako Auzitegi Nagusiaran erabakia Alicia Aristregiren familiak epaileen lana kritikatu ondotik etorri da. Izan ere, Eugenio Aristregik epaileen jokabide «epela» kritikatu zuen, arrebak hil eta hurrengo egunean. Senitartekoen, hala, epaileen lana auzitegiaren salatzeak aukera zabalik utzi zuten; izan ere, ez dute uste hiltzaileen kontra jarritako salaketek erantzun egokia eman zitzaienik.

**DEPENDENTZIA**

sortzen dira; baina Zigor Kodeak jasotzen ditu, eta, beraz, zigortu daitezke. Tratu txar fisikoetan, medikuen txostenak egoten dira, eta horiek objektiboak dira, ez dago zalantzarik; psikologikoetan, ez dago lesiorik, eta testigantzekin frogatzea besterik ez dago: bizilagunek entzun dutena, familiakoek ikusi dutena eta biktima berak kontatutakoa. Askotan, biktimaren hitza akusatua hitzaren kontra dago, eta kontua asko zailtzen da, baina ez da ezinezkoa. Hala ere, halako kasu gutxi iristen dira, eta iristen direnean ere, gehienetan biak izaten dira, tratatu txar fisikoak eta psikologikoak.

**■ Epaitegietara iristen diren kasuak denboran luzatu diren tratatu txarren ingurukoak dira, ala denetarik dago?**  
Normalean, hitz egiten hasten direnean, ez dute jipoi bakarrik soilik kontatzen, luzaroko tratatu

«Emakumearen mendekotasun psikologiko eta ekonomikoa amaitu behar da»

**TRATU TXARRAK**

«Gehienetan tratatu txar fisikoak eta psikologikoak batera gertatzen dira»

txarrak dira. Askotan, gainera, aurretik salaketa gehiago izan dira, eta aurrekariak bildu behar ditugu. Aurrekarietan lortzen dugu faltak delitu bilakatzeko, eta zigorrak gogortzea.

Bestetik, oso garrantzitsua da salaketa jasotzen dutenen

jarrera. Ni Errenterian nintzeanean, Ertzaintzatik behin baino gehiagotan deitu zidaten, kontsulta egiteko edo emakumea epaitegira ekarriko zutela esateko. Horrek badu garrantzia, hasieratik ikusten delako interesa eta harremana. Baina ez da ohikoa, gehienetan salaketa paperean jasotzen da, eta epaileari iristen zaionerako egun batzuk pasatu dira. Hotzagoa da.

**■ Horrek ez du eragiten emakume askok atzera egitea?**  
Bai, eta askotan gertatzen da. Hala ere, kasuak aurrera jarraitzen du, fiskalak hartzen duela bere gain. Baina zer gertatzen da? Emakumearen lekukotza gabe alferrik ari garela. Orduan zalantza sortzen zaigu. Biktima eta lekukoa pertsona bera da, eta lekukoek deklaratzeko betebeharra dute. Ez bada etortzen, legeak dio isuna jar

dezakegula, lekukoa atxilotu eta etortzera behartu dezakegula, bere kontrako prozesua ireki dezakegula... Beraz, zer egiten duzu? Tratu txarrak jasana eta, gainera, karga hori bota behar diozu?

Gehienok ez dugu behartzen deklaratu nahi ez duen emakumea. Hala ere, badugu zerbitzu bat biktimari laguntza emateko, eta nik asko erabili dut. Biktima oso seguru ez dagoenean, zerbitzu horretara bidaltzen dut, eta han abokatu, psikologoa eta gizarte laguntzailea ditu. Laguntza horrek segurua sentiarazten du, eta agian urratsa egitera animatzen da. Ertzain, udaltzain eta epaileak baino ohituagoak daude arazo sozialari aurre egiten, egia baita guk askotan gehiago begiratzeko diogula prozedura judizialaren ikuspuntutik eta ez gaudela prestatuak behar duen

laguntza moral hori emateko. Nik behin baino gehiagotan galdetu izan diot emakume bati zergatik jarraitzen duen gizon horren ondoan. Mendekotasun ekonomikoa eta psikologikoa amaitzea da gakoa.

**■ Azkenik, terminologia arazo bat. Etxeko indarkeria erabiltzen da, genero indarkeria erabili beharrean; horrek ez al du erakusten administrazioak oraindik ez diola garrantzirik ematen gaiari?**  
Izan daiteke, ez dut ukatzen halako kutsu bat ematen zaio. Baina *etxeko indarkeria* terminoak ez ditu emakumeen kontrako tratatu txarrak soilik hartzen; adingabekoen eta zaharren kontrako indarkeria ere jasotzen du. Beraz, uste dut izen horrek ahalbidetzen duela hori guztia barne hartzea, nahiz eta ezin den ukatu kutsu hori baduela.



**Barkatu Auzitegia**

**Bihar**

**Egunkaria**

**Bertzelako proposamenak, Beran**

**‘Break dance’-a, karriketatik aretora**

**Kuraia, rockaren aldeko konpromisoa**

**Arkaitz Goikoetxea: «Plazara atera baino, nahiago dut muturreko bat hartu»**

*...zure independentzia*